

TXOSTEN
DIDAKTIKOA

URRIAK 10
ESKOLEN EGUNA




ikusimikusi

HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZOKA

URRIAK 10 & 11 - **2025** - 10:00 - 19:00

BIZIKI GOXATU, OSOKI MAITATU



ikusimikusi.eus



SARA



PAMIELA
argitaletxea



zBbY
Galtzagorri
elkartea



AURKIBIDEA



1/ Aurkezpen Orokorra

- a/ Zer da IKUSI MIKUSI
- b/ Zendako IKUSI MIKUSI
- d/ Helburuak
- e/ Partaideak
- f/ Asmoak eta gogoak

2/ Euskal Haur eta Gazte Literatura

- a/ Historiaa Frantzian
- b/ Historiaa Euskal Herrian
- d/ Gaurko egoera
- e/ Europako Haur eta Gazte Literatur Azokak

3/ Ikusi Mikusi 2025

- a/ Antolaketa orokorra
- b/ Eskolen eta Profesionalen eguna
- d/ Familien eguna

4/ Elementu Praktikoak

- a/ Aldaketak
- b/ Egutegia
- d/ Eskolen bete-beharrak
- e/ Izen emate taula



1 - AURKEZPEN OROKORRA

a / ZER DA IKUSI MIKUSI ?

IKUSI MIKUSI proiektua, euskara hutsean den HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA da. Lehen edizioa 2021-ean izan zen, 2025-ko urriaren 10 eta 11an bostgarren edizioa izango da.

Usaian bezala, SARA herrian ospatuko da ekitaldia. Azkenean, IKUSI MIKUSIk euskarari eta haur eta gazte literaturari premiazko tokia eskaintzen dio, bi egunez : eskolen eta profesionalen eguna eta familien eguna.

b / ZENDAKO IKUSI MIKUSI ?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehio berri bat zabaldu nahi dio IKUSI MIKUSIK. Gertaera hunek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal Herri osoko ikasleak (eskola egunean), profesionalak (profesional egunean) eta jendartea (famili egunean), elkartu nahi ditu, Euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik (adinen arabera), baita ere altzari eta espazioen antolaketa aldetik.

Forma ibiltariak alderdi guztietan betetzen du jaialdiaren kontzeptua, eskola eta familientzat pentsatuta baita.

Haur eta gazte euskal literatura profesional guztiak, Euskal Herri osotik presente izango dira: liburuen argitaletxeak (bakarrik euskarazko liburuak), idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburu-zainak, kondalariak eta artistak.

d / HELBURUAK

- Euskal haur eta gazte literatura (gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusieta-koa) plazara jalgitzea eta sustatzea.
- Euskal herri osoko ikasleak (eskolen egunean), profesionalak (profesionalen egunean), eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, Euskara, plazerra eta literaturaren inguruan.
- Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.
- Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi ditzaten, albumek eskaintzen duten irakurketa eta idazketa jolasei esker.

e / PARTAIDEAK


Lau Euskal bazkideek : MARIGORRI, SARAko Herria, GALTZAGORRI elkarteak eta PAMIELA haurrentzako literaturan espezializatuak, ahaleginak eta ezagutzak kontzentratzen dituzte, EUSKARAZKO HAUR eta GAZTE LITERATURA ekitaldi hau, nagusia eta epe luzerako gertaera paregabea izan dadin.



MARI GORRI

MARI GORRI Saran kokatua den elkarteak da, eta bere helburu nagusia da euskarazko haur eta gazte literatura garatzea, Ikusi Mikusi antolatuz. Bere ko-lehendakariak Yolanda ARRIETA eta Pello AÑORGA euskal idazle famatuak dira, eta bere zuzendari artistikoa, Amaia Hennebutte.

SARA Herriak, aspaldidanik BILTZARRAri esker literaturarekin lotura zeukanez, begi onez eta gogo handiz harrera ona egin zion IKUSI MIKUSIri hastapenetik : Euskara eta Haur literatura garatzeko asmoarekin.




zBbY

Galtzagorri
elkartea

GALTZAGORRI, Donostian kokatua den 35 urte dituen elkarteak da, hegoaldean, euskal haur eta gazte literatura-ren erreferentzia bilakatu dena. Haur literatura sustatzen, zabaltzen eta garatzen du, gizarte zibilaren arlo guztiak sentsibilizatuz : egileak, idazleak, ilustratzaileak, profesionalak, familiak, eskola munduan haurrak eta irakasleak.

PAMIELA argitaletxea, Nafarroan kokatzen da, eta euskarazko lehen albumen edizioan aitzindaria izan da. Gaur egun, munduko klasiko ezinbesteko lanak euskaratu ditu. Literatura hau bultzatzen jarraitzen du, urtero, Etxepare saria irabazi duen liburua argitaratuz.



PAMIELA
argitaletxea



Partaide eta laguntzaile askok sustengatzen dute aurten ere gertaera nagusi hau, besteak beste, Euskal Hirigune Elkargoak, DRAC-ek baita ere JON MICHALSKI Fundazioak.

Fondation
Jan Michalski



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE




f / ASMOAK ETA GOGOAK

Eskola egunean, maila guztietako ikasleak, Euskal Herri lurralde guztietatik biltzen eta elkartzen dira Saran.

Ikusi Mikusira heldu den ikasle bakoitzak BONO bat jasoko du, eta hunekin, gus-tukoa duen liburua erosten ahalko du !

Erabat haiei dedikatutako eguna elkarrekin igaroko dute, eta hainbat ekitalditan parte har dezakete :

- euren eta besteen sorkuntzen erakusketa bisita dezakete,
- euskal liburuak ezagutzen eta erosten ahalko dituzte,
- euskal idazle eta ilustratzaileak topatuko dituzte,
- ikuskizunak ikusiko eta biziko dituzte,
- tailerretan parte hartuko dute, eta sortzaile bilakatuko dira.



2 - EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA

a / HISTORIOA FRANTZIAN

Frantzia herrian, betidanik HAUR LITERATURAK toki handia izan du gizartean.

18. mendean hasi zen haur literatura.

Garaian, hurrei zuzendutako literatura moralista eta pedagogo da: ixtorio guztiak biziki moralak ziren, eta liburuetan agertzen ziren pertsonaiak, haurrendako, irakurlearendako, modeloak izan behar ziren.

19. mende erdian, liburuetan, agertu dira lehen haur pertsonaiak konplexuak, eta trabagarriak:

Jean-Paul Choppart, izan zen lehena: Louis Desnoyers-ek asmatu, (lehen gazte elaberria) 1836-an. Anti-heroa zen benetan: fisikoki itsusia, gainera mila zozokeri egiten...

Gero Pinocchio, Tom Sawyer... eta beste, inspiratu dituenak.

Bi mundu gerren artean, haur pertsonaiak autonomoagoak eta libreagoak agertzen hasi ziren : ezagunena, Fifi Brindacier (edo Pipi Kaltzaluze) neska suediarra, eskandaloa eta debekatua izan zena luzaz. Gezurrari, irudimenari eta sorkuntzari ate bat zabaldu zen orduan! Haur zintzo eta haur gaiztoaren dikotomia amaitu zen.

60. hamarkaden bukaeran, eta sustut 68. urteetan, zinez aldaketa sendi da : haurra BILUZIK agertzen da.

Sendak idazleak «In the Night Kitchen» album ilustratua kaleratu zuen 1970ean, eta bertan lehen aldiz haur bat biluzik agertzen da. Liburu hau album ilustratuaren aitzatzat hartzen da.

Gai berri batzu jorratzen dira, hala nola burasoen bereixketa, heriotza haurren trauma eta beldurrak...

Lehen literaturak haurra «babesten» zuen, orain haur eta gazte literaturak muga berezirik ez dauka.

Azkenean, gaur egun, erran dezakegu, haur literaturak gizartearen bilakaera jarraitzen duela.



b / HISTORIA EUSKAL HERRIAN

Euskal-herria aipatzerakoan, iparralde eta hegoaldeak bereixi behar dira.

Erran gabe doa, Iparraldean, Frantzia kulturaren eragina izanki, haur literatura kulturaren sartua dela: burasoek albumak erosten dituzte, arratsetan haurrei ipuinak irakurtzen dizkiete, eskoletan, albuma oinarrizko lan tresna ezinbestekoa bilakatu da.

Hegoaldean, Haur Literaturaren garapena Euskara Hizkuntzaren egoerari lotua izan da. Erran bezala, Frantzian, 1960. urtetik goiti garatuz joan da, aldiz Hego Euskal herrian, 80. hamarkadan hasi zen haur literatura garatzen, euskararen normalizazioarekin batera.

Ondorioz, hegoaldean, euskal haur eta gazte literaturaren garapenak “beranta” hartu zuen.

Adibidez, 2000. urteetan, 5 urte goitiko haurrentzat, euskarazko liburu eskaintza bazegoen, aldiz 0-5 urte artekoentzat, sorkuntza propiorik ez zegoen. Geroztik, emeki-emeki garatuz doa, argitaletxe batzuei esker.

Gaur egun, bagoaz munduko obra kanonikoak euskaratzen eta sekulako garapena ezagutzen du Euskal Haur eta Gazte Literaturak, sorkuntza arloan idazle eta ilustratzaile berri eta gazteei esker.

e / GAURKO EGOERA

Edalontzia betetzen ari den seinale, egun, sorkuntza aberatsa eta zabala dago euskal sortzaile ugarien artean, batez ere ilustratzaile ofizioari erreparatuta. Hor dugu, adibidez, Miren Asiain, Iban Barrenetxea, Maite Gurrutxaga, Eider Eibar, Maite Mutuberria, Elena Odriozola, Leire Salaberria...

Komikia mundua ari da mugitzen eta egile eta irakurle ugari erakartzen: Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Asisko Urmeneta, Julen Ribas, Dani Fano...

Idazle gazte ugari ari da plazaratzen: Leire Bilbao, Oihane Fernandez, Ana Jaka, Ramon Olasagasti, Ruben Ruiz, Castillo Suarez...

Salon du Livre et de la Presse Jeunesse Montreuil:

Haur eta gazte literatura azoka garrantzitsua, Frantzia geratzen da, Montreuil hirian, urte guziz, azaro amaieran.

Aste oso batez, publikoa eta munduko profesionalak biltzen dira, eta sorkuntza berriak plazaratzen dira, ikuskizunak eta tailerrak antolatuta dira, idazle eta ilustratzaileak argitan emanak dira....

Eskolen eguna, familien eguna, baita ere profesionalenak antolatuta dira. Literatura sorkuntza eta berrikuntza guztiak agerian jarriak dira. Munduan zehar, ezinbesteko hitzordua bilakatu da.



Bologna Children's Book Fair:

Bigarren hitzordu garrantzitsua da apirila hastapenean Bolognan antolatzen den azoka, urte guziz. Baina azoka honetan, gehiago argitaletxe eta marrazkilarien arteko topaketa profesionalak dira antolatuta.

Ez da irekia publiko zabalarari (eta sustut haurrei).

Bienále Ilustrácií Bratislava BIB:

Ilustrazioen nazioarteko azoka da, 1966.urtetik bi urtetik behin ospatzen da Eslovakian. Haur eta gazteen liburu-erakusketak erakusten dira. Andersen sariarekin batera ospetsuenetakoa da. Euskal irudigile batzuek bertan Urrezko Sagarra Saria jaso dute, adibidez Asun Balzolak 1985.urtean eta Elena Odriozolak 2015. urtean.



Buchmesse Frankfurt:

Urrian antolatzen den azoka mundiala honetan, gehiago profesionali zuzendua da, argitaletxeen arteko egile eskubideen baimenen salmenten egiteko tokia bilakatu da.

3 - IKUSI MIKUSI 2025

a / ANTOLAKETA

Bi egun ezberdin :

- ESKOLEN eta PROFESIONALEN EGUNA Urriak 10.
- FAMILIEN EGUNA Urriak 11.
- Tokia : Sara herrian, Lapurdin kokatua, muga ondo-ondoan.
- Forma ibiltaria : sala ezberdinak, aterpeak, gunexoxoak, ostatuak...

Haur eta Gazte Literatura mundua:

euskal argitaletxeak (bakarrik euskara hutsean diren liburuak),

- idazleak
- ilustratzaileak
- tailerrak
- topaketak
- mintzaldiak
- ikuskizunak
- liburuaz gozatzeko gunek, haur eta gazteei dedikatuak, egokituak eta aurre-pentsatuak.

AURTEN, Ikusi Mikusira ikasleekin etortzeko, DERRIGORREZKOA DA IKUSKIZUN BATEAN APUNTATZEA (5€/ikasleka).

1. Hautatu IKUSKIZUNA ikasleendako.
2. Apuntatu ikasle kopurua ikuskizunean, eta ordainketa zuzenean egin, HELLO ASSO-ren bidez.
3. Beste animazioendako: tailerrak, topaketak, ipuin-kondaketak... (guztiak dohai-nik), ONDOREN antolatuko da IZEN-EMATEA, eta derrigorrezkoa izanen da ere.
4. Liburu baten erosteko bono bat eskainia izanen zaio haur bakoitzari.
5. Usaian bezala, aurretik obra bat sortzea eskatua zaizue, aurtengo gaiari bu-ruz : « *DENAK BERDIN, DENAK EZBERDIN, ETA ZU ?* »



6 / ESKOLEN EGUNA: URRIAREN 10A OSTIRALA

Eskolak, IKUSI-MIKUSI azokara etorri aitzin, aurretik proiektuan sartu eta inplikatuta behar dira : ikasgela bakoitzak idatz lan EDO/TA grafiko bat sortzen du.

Aurtengo IKUSI MIKUSI gaia :

« DENAK BERDIN, DENAK EZBERDIN, ETA ZU ? »

Ikasgela bakoitzak idatz lan EDO/ETA grafiko bat sortzen du.

Ikasgela bakoitzak, gaiari lotuta, sortuko du :

- edo idatz lan bat (olerki, ipuin, komiki...)
- edo lan grafiko bat (afitxa, ilustrazio, tinta...)
- edo idatz lan grafiko bat (testua eta ilustrazioa, album ilustratu bat, olerki ilustratuak...)

Neurriak: gehien bat A3 neurrikoa.

Alde batean: obra

Beste aldean: eskolaren izena eta ikasgela.

Lan guztiak SARA KO HERRIKO ETXERA helarazi beharko dira, epe-muga, Urriaren 6a delakoan.

ERAKUSKETA gunean agerian erakutsiak izanen dira lan guztiak, publikoari zabaldua. Haurrek beren ekoizpena aurkitzen eta ikusten ahalko dute, azokara etortzerakoan.

Azoka amaituta, gogoia izanen duten eskolek, beren lana berreskuratzen ahalko dute, Sarako Herriko etxean, epemuga errespetatuz : hilabete bat Ikusi Mikusi pasatuta, ondorioz azaroak 12a.



ERAKUSKETA

«Ikasleen obrak»

Eskola guzietan egindako lana aurtengo gaiari buruz, egun osoan.



IKUSKIZUNAK



TXIKIENTZAT (+3 urte) :

« TTINKA »

**Arantxa Hirigoyen &
Philippe Albor aurkezturik.
45 minuta.**

**Kantu, musika, ipuin eta antzerkia
10:30 / 12:30 / 14:00**

1 LURBERRI

Ttinka ikuskizunaren bidez, kantua, musika, ipuinak eta antzerkia uztartzen dira. Kantu guziak sorkuntzak dira eta gehienak proiektu honendako espreski sortuak. Proiektuak osotasun bat eskaintzen du : diska/liburua eta ikuskizunarekin batera lanketa pedagogiko bat proposatzen du, hizkuntza, memoria eta jakin-mina uztartuz.

DENENTZAT (+5 urte) :

« MIKRA »

**Berdinki konpainia
45 minuta.**

**Zirku garaikide pieza
10:30 / 14:00**

6 SARA KO PLAZA



Nola identifika gaitezke erakusten dugunaren eta garenaren artean? Aske bizi dugu geure nortasuna?

Genero eta rol estereotipoetatik abiatuz, guztiok bizi duguna eta guhaur izateko bidea nola bilatzen eta aurkitzen ahal dugun, aipatzen da MIKRA piezan, zirku disziplina akrobatikoak eta poetikoak erabiliz.

TOPAKETAK

HAUR ETA GAZTEENTZAT (+8 urte) :

IDAZLE-ILUSTRATZAILEEN TOPAKETAK

« Zuzenean | Telebista aurrean ! »

2 TELEBISTA GUNEA

Gazteek ikasgelan aurretik idazle- ilustratzaile bati buruz ikerketak eramango dituzte, eta galdeketa oso bat prestatuko dute.

Ikusi Mikusin, aukera izango dute egile hau benetan galdezkatzeko, telebista emankizun baten moduan, Kanaldudek zuzenean filmatu eta hedaturik.

KASU! GALDEKETA IKASTETXEAN PRESTATZEN DA, egunean bertan galdeketa eramateko, BAKARRIK 4 ikasle agertuko dira telebista platoan.

Ikastetxe ezberdinek ber idazle-ilustratzaileari galderak pausatzen ahalko dituzte, kasu horretan kontaktuan ezarriko zaituztegu!

- 10:30 - HARKAITZ CANO
- 11:30 - BEGOÑA DURRUTY
- 12:30 - MIREN AMURIZA
- 14:00 - ELENA ODRIUZOLA



TAILERRAK



TXIKIENTZAT (+3 urte) :

« LIBURU KONTAKETA »

Iñaki Carreteroren eskutik.
45 minutu.

Irakurketa eta antzerkia.

10:30 / 12:30 / 14:00

5 KEINU GELA

«Gero eta guttiago kantatu eta kondatzen zaie gure txikitxoei. Zu heldu, aita edo ama, txikia zinenean gogoratzen al duzu kantatzen edo kondatzen zizutena ? Gu gogoratu gira eta zuekin eta zuen ikasle eta seme-alabekin partekatu nahi dugu»

TXIKIENTZAT (+3 urte) :

« NAIZEN BEZALA »

Lizeoko Pro Animazio ikasleen eskutik.

35 minutu.

Ipuin kondaketak

«Jones Jones izan nahi du»

& «Munduko karramarrorik ertainena»

10:30 / 12:30 / 14:00

8 MEDIAKETA



Zatoz «Jones Jones izan nahi du» eta «Munduko karramarrorik ertainena» liburuetan oinarritutako irakurketa antzeztuko tailer batera. Identitatea, nor izatea eta bere burua onartzea izango ditugu ardatz, istorio bizidunen eta jolasaren bidez haurrek hausnartu eta goza dezaten.

TAILERRAK



TXIKIENTZAT (+3 urte) :

« LIBURU AURPEGIA »

Lizeoko Pro Animazio ikasleen eskutik.

35 minutu.

Esku lanak

10:30 / 12:30 / 14:00

7 SUHARRIAGA

Haur bakotxak “liburu orri txiki” bat sortuko du bisai baten formarekin (berea edo asmatutakoa), material sinpleekin: papera, artilea, pegatinak, arkatzak... Azkenik, orri guziak bilduko dira “liburu kolektibo” handi bat osatzeko: aurpegi, gustu eta identitateen aniztasunari buruzko horma-liburu bat.

HAURRENTZAT (6-11 urte) :

« GORPUTZAK LIBRE »

Arantxa Lannes-en eskutik.

45 minutu.

Dantza

10:30 / 12:30 / 14:00

10 OLHAIN GELA



Arantxa Lannes artista plastiko eta koregrafikoa da.

Haren lana, sorkuntza artistikoan engainatzen da, mugimendua gai nagusitzat hartuz, ikusmolde sensible eta poetiko batekin. Mundu guziak dantzaarazteko!

TAILERRAK



HAURRENTZAT (6-11 urte) : « ZURE LIBURUA SORTU »

Daniela Maitia-en eskutik.
45 minutu.

Esku lana

10:30 / 12:30 / 14:00

9 LARRUN GELA

Sakelan ukaiteko liburu ttipi bat, sorkuntza simple eta polita haurrendako, materiala gutirekin: margoak, idazluma, aisturrak eta kola besterik ez beharko da. Eguneroko liburu ttipia sakelan, ikasten ditugun hitzak edo olerkiak idazteko.

HAURRENTZAT (6-11 urte) : « MASKAK SORTU »

Lizeoko Pro Animazio ikasleen eskutik.

45 minutu.

Esku lanak

10:30 / 12:30 / 14:00

6 HERRIKO ETXEA



Haurrak euren maska pertsonalizatuak sortuko dituzte, nor diren edo izan nahi dutenaren irudikapen gisa, kartoi-plater, lumak, perlak, markagailuekin. Haurrak haien bisai ezaugarri zehatzak marraztu ditzakete, edo irudipenari askatasuna eman.

TAILERRAK



HAURRENTZAT (6-11 urte) :
« ETA GERO, ZER? »

Lizeoko Pro Animazio ikasleen eskutik.
45 minutu.
IPUIN KONDAKETA & ESKU LANA
10:30 / 12:30 / 14:00

7 SUHARRIAGA

Haurrak «Bihotza alderantziz zuen barraskiloa» liburuaren istorioari segida bat sortuko dute, barraskiloaren alderantzizko misterioa inguruan. Ondoren, istorioaren bertsioa irudikatuko dute marrazkiekin eta kolaketekin. Tailerrak sormena eta euskarazko adierazpena sustatzen ditu.

HAURRENTZAT (6-11 urte) :
« KAMISHIBAI »

Mattin-en eskutik.
45 minutu.
Ipuin eta marrazkiak
10:30 / 12:30 / 14:00

4 GAZTE GUNEA



Mattin marrazkilariak, berak sortutako ipuina irakurriko du. Ondoren, irakurritako ipuina oinarri hartuta, haurrak pasarte bat marraztuko du, eta denen aurrean azalduko du. Kamishibaia "paperezko antzerkia" da. Oso baliabide egokia da, hainbat arlo lantzen baitira: marrazketa, mintzamena, ulermena...

TAILERRAK



NERABEENTZAT(+11 urte) : «MARRAZTEN AHAL DA DENBORA? »

Adur Larrearen eskutik.
45 minutu.

Komiki Marrazketa
10:30 / 12:30 / 14:00

7 SUHARRIAGA

Marrazketa tailer praktikoa. Bertan, komikiaren ezaugarriak probestuz eta adibide ugariren bidez DENBORAREN igaroa marraztea posible dela erakutsiko dugu adierazpide desberdinak ikusiz, eta praktikan jarritz. MUGIMENDUA eta SOINUA marrazten ahal den ere ikusi eta praktikan jarriko dugu.

NERABEENTZAT (+11 urte) :

« TXALAPARTA »

Mikel Indoren eskutik.

45 minutu.

Musika

10:30 / 12:30 / 14:00

7 SUHARRIAGA (parkea)



Gazteek txalaparta instrumentua ezagutuko dute eta elkarrekin jotzen ikasiko dute. Erritmo desberdinak eta teknikak esperimendatuko dituzte, taldean denbora eta koordinazioa garatuz. Soinu berriak esploratuz, momentu interaktibo eta sortzailea izango da.



HEMEN BONOAK
ESKURATZEKO GUNEA
ATZEMANEN DUZUE!



TAILERR
ETA
IKUSKIZ



AK

UNAK

SARA HERRI GUZIAN IRAGARKI
TAULA ETA GEZIAK ATZEMANEN
DITUZUE.

SARA

PONTX ETA BERE ASTOA

SARAKO HERRI OSOAN

Pontx Pailazoa, gure herriko pailazo ezaguna, egun osoan zehar bere astoarekin hor izanen dugu eta Saratik gaindi momentu magikoak eskainiko dizkigu. Liburuz betetako poltsak dituela, herriko txoko guzietan sartu eta jolas, irakurketa eta antzerki une zoragarriak biziaraziko dizkigu.



IZEN EMATEAK

AURTEN IZEN-EMATE GUZIAK ETA ORDAINKETAK

HELLOASSO WEBGUNEAN EGITEN DIRA!

Izen-emateak Maiatzaren 20an irekiko dira.

KASU ! Aurten, IKUSKIZUN batean izena (eta ordainketa) egin behar duzue lehenik.

Eta ondoren, bigarren urrats batean, izanen duzue orduan aukera tailerretan izena emateko.

KASU ! Lehen bai lehen erreserba egin, biziki hartuak baitira tokiak!

Nola egin ?

1/ Begiratu TXOSTEN DIDAKTIKO HUNTAN zein ikuskizunetan parte hartu nahiko duzun.

2/ Maiatzaren 20etik goiti, HelloAsso webgunean : ikuskizuna hautatu, ikuskizunaren ordua aukeratu bertan klikatuz eta ordainketa segituan egin.

3/ HelloAsso fitxategia bete.

Oroitaratzen dizuegu, urrats horiek eginda, orduan, izanen duzutela aukera tailerretan izena emateko.

EGUTEGIA

Ikastetxeen izen-emate hasiera:
Maiatzaren 20a

Ikasgelek beren idatz lan grafikoak bidaltzeko epea, Sarako Herriko Etxera:
Urriaren 6a

Eskolen eta profesionalen eguna:
Urriaren 10a

Familien eguna:
Urriaren 11a

IKASTETXEEN BETE BEHARRAK

1 | izena LEHEN BAI LEHEN eman, hautatutako ikuskizunean tokiak hartuz eta ordainduz.

2 | Adi egon, geroago, dohainik diren tailerretan izena emateko.

3 | Autobusa edo garraioa antolatu.

4 | Idatz lan edota grafikoa Sarako udaletxera helarazi.

IKUSI MIKUSI

Sarako Herriko etxea, BP 16,
64 310 Sara